

## **MU eta Kiroleskolak surfa eta irristatze kirolen industriarako profesionalak prestatzera zuzenduta dagoen estatuko lehenengo graduondoko ikastaroa eskeintzen dute**

2009/06/11

Irunen dagoen Mondragon Unibertsitateko Bidasoa kanpua izan da hurrengo ikasturtean Surfa eta Irristatze Kiroletan Marketing & Management Ikastaro Aurreratua emateko aukeratu den tokia.

Graduondoko titulu propio hau, surfa eta irristatze kiroltako industriarako profesionalak prestatzera zuzenduta dagoen lehenengo ikastaroa izango da estatu osoan.

Ekimen aitzindari honen helburua, irristatze industria hedatzea eta indartzea da. Eredu gisa Perth-en (Australia), California-n (EEUU), Plymouth-en (UK) eta Burdeos-en (Frantzia) izandako esperientziak jarraitu dira, hauek izan direlako orain arte mota honetako formakuntza ekintzak garatu dituzten bakarrak.

Lander Beloki, Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko Dekanoa eta Sancho Rodríguez, Amstel Surfifestibaleko arduraduna gaur goizean azaldu dira Amstel Surfifestibaleko ekitaldien barruan.

Agerpen honek Surfa eta Irristatze Kiroletan Marketing & Management Ikastaro Aurreratua ofizialki aurkezteko balio izan du, irristatze kirolen industriarako profesionalak prestatzera zuzendutako graduando lehenengo ikastaroa.

Ikastaro hau, surfa eta irristatze kirolen industrian parte hartzeko interesa duten ikasleei eta industria honen parte izanik bere ezagupen, gaitasun eta trebetasun espezifikoak lantzea eta bultzatzea nahi duten langileei zuzenduta dago.

175 prestakuntza ordu betetzen dituzten 9 atalez osatua, urrian hasi eta maiatzean bukatuko da eta edukin teoriko-praktikoak hartuko ditu bere baitan, nazioarteko marketing aditu eta surfa eta irristatze kiroltako profesionalen partehartzearekin.

Mundu mailako ekitaldietara, irristaketarako materiala sortzen duten fabrika eta lantegietara eta produktuen ikerketa eta garapen zentruetara bisitak burutuko dira.

Honetaz gain, Mondragon Unibertsitateak beti bere ezaugarri izan duen unibertsitate-enpresa arteko lotura sendoa eraikitzearen ideia mantenduko du. Ikasleek bukaerako proiektu bat garatzeko aukera izango dute irristatze edo marketing alorreko enpresetan, hala nola: Pukas Surfboards, Loreak Mendan edo Forum Sport, SurfFilmFestibal bezalako ekitaldietan edo Euskadiko Surf Federazioa eta BAT Basque Team Fundazioa erakundeetan. Hauek guztiak, dagoeneko proiektuarekiko eta elkarlanean aritzeko interesa erakutsi dute.

Aurre izen-emateko lehenengo epea uztailaren 10era arte irekita egongo da. Ikastaroari dagokion informazio guztia Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzietako Fakultateko eta Kiroleskolako webguneetan ikusgai eta eskuragarri daude.

